# UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ETA ESKOLETAKO ARETO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

**2. araua**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluko 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Kontzeptua

2. artikulua.- 1 Arau honetan ezarritako prezioak Udalaren kirol-instalazio eta eskoletako areto eta instalazioak kirolaren, kulturaren edo hezkuntzaren esparruetako jarduerak egiteko erabilera baimenduaren ondorioz emaniko zerbitzuen truke eskatzen dira. Jarduera politiko eta sozialak –Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-kanpainetan xeda dezakeenarekin batera– orain arte xede horretarako ezarritako lokaletan egin ahalko dira, bai eta Udalak espresuki eginkizun horretarako udal-taldeen eta alderdi politikoen eskura jartzen dituenetan ere: Calderería kaleko erabilera anitzeko aretoan, Elorri ikastetxeko areto nagusian, Ermitagañako eta Sanduzelaiko Gizarte Ekimenetarako zentroetako komunitate-aretoetan, Nafarroako Aurrezki Kutxaren Armada etorbideko aretoan eta Descalzos 56ko erabilera anitzeko aretoan, betiere ezertan galarazi gabe lokal gehiago erabiltzeko aukera, xede bererako.

Nolanahi ere den, eskoletako instalazioak erabiltzeko ezinbesteko baldintza izanen da ikastetxeek beren jarduerak egiteko eta beharrak asetzeko instalazio horiek behar ez izatea, eta tokia eskatutako jarduera egiteko aproposa izatea.

2) Ikastetxeetan, oro har, ez da halako lokalak erabiltzeko baimenik emanen, festa eiteko jardueretarako, hala nola, bazkari, dantzaldi, kontzertu, feria, azoka eta horrelakoetarako, ezta kasuan kasuko lokal edo instalazioko udal-langileen lan-ordutegitik at burutu eta udako oporretan arratsaldez egin nahi diren jardueretarako ere, salbu halakoak egiteko moduan langilerik izan bai eta gehigarri bat ordaintzen bada, erabiltzeko prezio publikoaren gainetik. Lan-ordutegi hori kasuan kasuko urtean indarra duena izanen da, organo eskudunak onetsitako egutegiarekin bat.

Ikasturte-bukaerako festen kasuan, ikasturte-bukaerako bazkariak barne harturik, zein ikastetxe publikoek antolatutako bestelako festen kasuan, erabilera bakarrik baimendu ahalko da, baldin eta ekitaldiak kasuan kasuko ikastetxeko Eskola-Kontseiluak programatuak eta onetsiak badira –hala dela berariaz egiaztatu beharko delarik eskabidea aurkezten denean– eta eskabidea ekitaldiek noiz izan behar duten eta Udalari, gutxienez, zazpi egun lehenago aurkezten bazaio.

Auzo- eta gazte-elkarteek, kultur koordinakundeek eta hiriko auzoetako festa-batzordeek kultura- zein jai-plan iraunkorren barruan aurkeztu eta diruz lagunduta dauden jardueren kasuan, baimena eman ahalko da ikastetxeetako guneak erabiltzeko, baldin eta aldez aurretik kasuan kasuko ikastetxeko Zuzendaritzak ontzat ematen badu, eta eskaera Udalari ekitaldia noiz izanen den eta, gutxienez, zazpi egun lehenago aurkezten bazaio.

3) Aurreikusi gabeko erabilerak salbuespen gisara baimenduko dira, egin beharreko jarduera Udalaren interesekoa bada; nolanahi ere, baimena jasotzen duen pertsonak edo entitateak indarra duten arauekin bat erabili beharko du lokala, bai eta erabilitako instalazioak eta lokalak erabili aurretik nola zeuden eta horrela utzi ere.

Salbuespen gisa Udalaren interesekoa izatea irizpide hartuta baimendutako erabilerek instalazio eta lokalei kalte edo narriadurarik eragiten badiete, prezio publikoa ordaindu behar duenak behar bezala leheneratu edo konpondu beharko ditu haiek, instalazioak eta lokalak erabili baino lehenago zeuden egoera berean utzirik, edo, bestela, Udalak hori dela-eta egin beharreko gastuak oro ordainduta.

4) Edonola ere, lagapenaren baldintzak kasuan-kasuan organo eskudunak onetsiko duen baimenean zehaztuko dira, halako eran non, baimen horretan, arautu ahalko baita lagatako instalazioen suntsipenari edo narriadurari erantzuteko berme nahiko bat eratze aldera eskatzaileari para dakiokeen betebeharra. Hala gordailua itzultzeko nola hura onartutako erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da aurrez, erabili diren instalazioak eta lokalak nola gelditu diren azalduta.

Ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- 1) Udalak instalazioak eta lokalak erabiltzeko nor baimendu eta pertsona edo entitate horiek guztiek izanen dute ordaintzeko betebeharra.

2) Honako kasu hauetan ez da prezio publikorik galdatuko:

a) Ohiko eskola- eta kirol-jardueretarako erabiltzen diren kasuan, baldin eta jarduerak kasuan kasuko ikastetxeko Eskola-Kontseiluak eta IGEak –beren helburu eta jardunen baitan– edo Udalak berak sustatuak badira, salbuespen gisara beste ikastetxe bateko patioaren erabilera baimentzen den kasua barne hartuta.

b) Kirol-instalazioak kirol-federazio batek edo horren pareko batek erabili behar baditu, baldin eta erabilera hori Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmen jakin baten ondorioa bada.

c) Lokalak fundazio eta elkarteek erabili behar dituzten kasuetan, baldin eta estatutuetan helburu gisa jasota badituzte hala beren baitan beste pertsonak hartzen dituzten familien eta familia horiek hartutako pertsonen nola terrorismo-ekintzak edo etxeko indarkeria pairatu dituzten biktimen interesen defentsa eta sustapena.

d) Lokalak edo instalazioak Nafarroako Gobernuaren ardurapean erabiltzearen truke, Udaleko organo eskudunak interesekoa jotzen badu egin beharreko jarduera.

e) Lokalak eta instalazioak beste zenbait entitatek erabiltzen badituzte, betiere Udalak haiekin elkarlanean jardun eta hala erabakitzen duen kasuan.

f) Lokalak auzo- eta gazte-elkarteek, kultur koordinakundeek eta festa-batzordeek erabiltzen dituzten kasuetan, baldin eta jarduerak zeinek bere auzoan egin eta Herritarren Partaidetzako Alorrari aurkeztutako plan iraunkorretan jasotako kultura edo jai-jarduerak badira, edo Udalaren diru-laguntzak jasotzen badituzte.

g) Lokalak irabazi-asmorik gabeko entitateek erabiltzen dituzten kasuetan, Udalak halakoak "Udal Onura Publikoko Herritarren Elkarte edo Entitate" jotzen baditu Herritarren Partaidetzaren gaineko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- 1) Kirol-instalazioak noiz edo noiz erabiliz gero, prezio publikoa kirol-instalazioak erabiltzeko lagapenaren jakinarazpenean adierazitako moduan ordaindu beharko da.

2) Eskoletako aretoak eta instalazioak noiz edo noiz erabiliz gero, areto eta instalazio horiek noiz erabiltzeko diren eta, gutxienez, zazpi egun lehenago aurkeztu beharko dira haiek erabiltzeko eskabideak, eta arrazoi nahikoa izanen da erabilera ukatzeko erabiltzeko eskaera gutxieneko epe hori bete gabe aurkeztea. Prezio publikoa Udaleko Diruzaintzan ordaindu beharko da, betiere aretoa edo instalazioa erabili baino lehen, eta behin Udalak espresuki erabiltzeko baimena eman eta gero. Udaleko Diruzaintzak ordaindu izana ziurtatzeko agiria emanen du eta agiri hori kasuan kasuko areto edo instalazioaren arduradunari aurkeztu beharko zaio, baimendutako erabileraren baldintza gisara.

3) Artikulu honetan araututakoaren ondorioetarako, erabilera-eskaera bat noiz edo noizkotzat joko da erabilera hori hilabete bat baino laburragoa den epe baterako bada.

5. artikulua.- Kirol- eta eskola-aretoak eta -instalazioak modu jarraian erabiltzeko, horiek noiz erabiltzen hasiko eta, gutxienez, 30 egun lehenago aurkeztu behar da erabilera-eskaera. Prezio publikoa kirol-instalazioak erabiltzeko lagapenean adierazitako moduan ordaindu beharko da Udaleko Diruzaintzan, Diruzaintzak ordaindu izanaren agiria emanen duelarik.

6. artikulua.- Instalazioetan dauden bitartean, instalazioak edo lokalak erabiltzeko txartelak edo baimenak gordeta eduki beharko dituzte erabiltzaileek, instalazioen zaintzaileek eskatuz gero haien eskura jartze aldera.

7. artikulua.- Udaleko kirol-instalazioak erabiltzeko baimena dutenek sarreren prezioak arautu ahalko dituzte, baldin eta baimena badute ikusleak ekartzen dituzten jarduerak burutzeko, halakoak kirolekoak izan ala ez izan.

Tarifak

8. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

9. artikulua.- Baldin eta eskatzaileek Arau honen eranskinaren 2.4. epigrafean jasotako murrizketen onuradun izan nahi badute, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, nahitaez:

a) Murrizketa familia ugaria izateagatik jasotzeko, familia ugariko titulua, betiere Familia Ugariei buruzko 20/2003 Foru Legeak ezarritako definizioarekin bat

b) Murrizketa familiaren diru-sarrerak direla medio jasotzeko, familiako kide guztiek urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien aitorpen justifikatua eta halakorik egiteko betebeharra duten kideen PFEZaren gaineko aitorpena, eskaera noiz egin eta orduantxe aurkezteko epea amaiturik duena

c) Murrizketa minusbaliotasuna dela medio jasotzeko, agiri ofizial bat, non jasoko baita eskatzaileak % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa duela, edo ezintasun iraunkorra zein elbarritasuna dela bide administrazio publikoen diru-prestazioak jasotzearen gaineko egiaztagiria

d) Murrizketa alarguntza-pentsio baten onuradun izanda urteko diru-sarrera gordinak Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoak izateagatik jasotzeko, zein urtetan den eta urte horretan pentsioak zenbat jotzen duen adierazten duen Gizarte Segurantzaren agiria, bai eta eskaera noiz egin eta orduantxe aurkezteko epea amaiturik duen PFEZaren gaineko aitorpena ere, edo, halakorik aurkezteko betebeharrik ez badute, urteko diru-sarrera gordin guztien aitorpen justifikatua

e) Murrizketa terrorismo-ekintzen biktima izateagatik jasotzeko, biktima-izaera aitortzen duen administrazio-ebazpena edo epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiria

f) Murrizketa etxeko indarkeriaren biktima izateagatik jasotzeko, hori aitortzen duen epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiria

g) Murrizketa familiek beren baitan beste pertsona batzuk hartzeagatik jasotzeko, abegia formalizatzen duen agiria edo hura erabaki duen administrazio-ebazpena edo epaia

10. artikulua.- Tarifak aplikatzeko, honako hauen batuketa hartuko da familiako diru-sarrera gordintzat: zerga-oinarriaren alde orokorra, aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia eta PFEZetik salbuetsiak diren aurkeztutako errentak, non jasoko baitira aitorpen horietan sartu ez diren eta urtean-urtean justifikatu diren diru-sarrera gordinak. Familiaren urteko *per capita* diru-sarrera gordinak izanen dira aurreko batuketa familia-unitateko kide kopuruaz zatitu eta hortik ateratzen den zenbatekoa.

## TARIFA-ERANSKINA

### I. EPIGRAFEA.- KIROL-INSTALAZIOAK

| | |
|---|---|
| I.1. Kirol-pista estalia, trinketa edo erabilera anitzeko aretoa: | |
| I.1.1. Lehen ordua, aldagelak erabilita | 36,50 euro |
| I.1.2. Bigarren ordua eta hurrengoak | 7,95 euro |
| Baldin eta kirol-pista estalia edo erabilera anitzeko aretoa bi talde edo gehiagok erabiltzen badute batera, tarifa hainbanatuko dute beren artean. | |
| I.1.3. Epigrafe honetako 1.1.1. eta 1.1.2. kontzeptuak direla-eta aplikagarri diren tarifak aparte utzirik, kirol-pista estalia denboraldi osoan zehar jendaurrean egitekoak diren lehiaketetako partidak –halakoak doan izanik ere–, jokatzeko erabiltzen duten klub edo elkarteek honako zenbateko hau ordainduko dute, aldi bakar batez eta kirol-pista estalia denboraldi bakoitzeko erabiltzeagatik, kuota berezi gisara | 251,80 euro |
| I.1.4. Jendaurrean egitekoak diren noizbehinkako kirol-jarduera eta -ikuskizunak, horiek doanekoak badira, ekitaldi edo emanaldi bakoitzeko, | 366,30 euro |
| I.1.5. Jendaurrean sarrera kobratuta egitekoak diren noizbehinkako kirol-jarduera eta -ikuskizunak, ekitaldi edo emanaldi bakoitzeko, | 920,80 euro |
| I.1.6. Kirolez besteko erabilerak: | |
| - Jendaurrean egitekoak diren jarduera eta ikuskizunak, horiek doan izanik ere, ekitaldi edo emanaldi bakoitzeko, | 920,80 euro |
| - Muntatze eta desmuntatzeko egun bakoitzeko | 347,95 euro |
| I.1.7. Murrizketak (I.1.1., I.1.2. eta I.1.3. epigrafeetarako oharra). Kirol-pista estalia edo erabilera anitzeko aretoa erabiltzen dituzten klub edo elkarteek ondoko murrizketa-ehunekoak izanen dituzte hobari, kirol-denboraldian barna (irailaren 15etik ekainaren 15era) guztira erabilitako orduen kopuruaren arabera: | |
| - 1.000 ordutik goitik erabilita | % 40 |
| - 751 eta 1.000 ordu bitarte erabilita | % 30 |
| - 501 eta 750 ordu bitarte erabilita | % 20 |
| - 250 eta 500 ordu bitarte erabilita | % 10 |

| | |
|---|---|
| I.2. Muskulazio-gela. Banan-banako erabilera, aldagela erabiltzeko eskubidea barne: | |
| I.2.1. Pertsona eta ordu bakoitzeko, | 3,20 euro |
| I.2.2. 20 aldiz erabiltzeko abonamendua, pertsona eta ordu bakoitzeko, | 56,05 euro |

| | |
|---|---|
| I.3. Trinketaren banakako erabilera, aldagela erabiltzeko eskubidea barne, pertsona eta orduko | 5,50 euro |

| | |
|---|---|
| I.4. Kanpoko kirol-pista: | |
| I.4.1. Lehen ordua, aldagelak erabilita | 20,55 euro |
| I.4.2. Bigarren ordua eta hurrengoak, edo lehenbiziko ordua aldagelarik gabe | 3,30 euro |
| I.4.3. Pista osoa erabiltzea, hezkuntza- edo kultura-ekitaldietarako | 74,25 euro |
| - Muntatze eta desmuntatzeko egun bakoitzeko | 74,25 euro |
| Instalazio horiek aparteko jarduerak egiteko lagatzeak berekin badakar udal-langile gehiago aritu behar izatea, dagokien prezio publikoaz gain honako hau ordaindu beharko da langile eta ordu bakoitzeko: | 22,80 euro |

**II. EPIGRAFEA.- KIROLGUNEAK**

| | |
|---|---|
| II.1. Igeritokiak eta instalazio osagarriak udako denboraldian (Ekainak 15 – Irailak 15) | |
| II.1.1. Egun bateko sarrerak lanegunetan: | |
| - 2 – 14 urte | 2,70 euro |
| - 14 – 25 urte | 3,05 euro |
| - 25 – 65 urte | 4,45 euro |
| - 65 urtetik gora | 2,70 euro |
| II.1.2. Egun bateko sarrerak, jaiegunetan eta sanferminetan: | |
| - 2 – 14 urte | 2,70 euro |
| - 14 – 25 urte | 3,90 euro |
| - 25 – 65 urte | 5,50 euro |
| - 65 urtetik gora | 2,70 euro |
| II.1.3. Denboraldirako abonamenduak: | |
| - 2 – 14 urte | 40,30 euro |
| - 14 – 25 urte | 60,50 euro |
| - 25 – 65 urte | 80,75 euro |
| - 65 urtetik gora | 40,30 euro |
| II.2. Igerileku estalia eta instalazio osagarriak. Neguko denboraldia (Urtarrilak 1 – Abenduak 31, udako denboraldia izan ezik): | |
| II.2.1. Egun bateko sarrerak: | |
| - 2 – 14 urte | 3,85 euro |
| - 14 – 25 urte | 3,90 euro |
| - 25 – 65 urte | 5,50 euro |
| - 65 urtetik gora | 3,85 euro |
| II.2.2. Denboraldirako abonamenduak: | |
| - 2 – 14 urte | 119,60 euro |
| - 14 – 25 urte | 166,15 euro |
| - 25 – 65 urte | 238,65 euro |
| - 65 urtetik gora | 119,60 euro |
| II.2.3. Beste hainbat zerbitzu: Igerilekuko kale bat ordu batez alokatzea, betiere Udalaren interesekotzat jota aurrez aurretik baimendu bada: | |
| - Lehen ordua | 44,60 euro |
| - Bigarren ordua eta hurrengoak | 7,95 euro |
| II.3. Instalazioak urte osoan erabiltzeko abonamenduak (urtarrilak 1- abenduak 31): | |
| II.3.1.- 30 eguneko abonamenduak (ondoz ondoko egun naturalak, mugaeguna abenduaren 1a izanda): | |
| - 2 – 14 urte | 20,65 euro |
| - 14 – 25 urte | 32,15 euro |
| - 25 – 65 urte | 41,35 euro |
| - 65 urtetik gora | 20,65 euro |
| II.3.2.- 90 eguneko abonamenduak (ondoz ondoko egun naturalak, mugaeguna urriaren 1a izanda): | |
| - 2 – 14 urte | 51,60 euro |
| - 14 – 25 urte | 80,40 euro |
| - 25 – 65 urte | 103,40 euro |
| - 65 urtetik gora | 51,60 euro |

| | |
|---|---|
| II.3.3.- 180 eguneko abonamenduak (ondoz ondoko egun naturalak, mugaeguna uztailaren 1a izanda): | |
| - 2 – 14 urte | 71,45 euro |
| - 14 – 25 urte | 99,50 euro |
| - 25 – 65 urte | 143,05 euro |
| - 65 urtetik gora | 71,45 euro |
| II.3.4.- Urteko abonamenduak (urtarrilak 1 – abenduak 31): | |
| - 2 – 14 urte | 122,55 euro |
| - 14 – 25 urte | 170,65 euro |
| - 25 – 65 urte | 245,25 euro |
| - 65 urtetik gora | 122,55 euro |

| |
|---|
| II.4.- Murrizketak (II.1, II.2 eta II.3 epigrafeetarako oharra): |
| II.4.1.- Honako hauek zer abonamendu erosi eta horien zenbateko osoaren gaineko % 50eko murrizketa lortuko dute:<br>a) Familia ugarietako kideak<br>b) Urteko *per capita* diru-sarrera gordinak Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoak dituzten familia-unitateetako kideak<br>c) Legez aitorturik duten minusbaliotasunek jotako pertsonak, minusbaliotasun hori % 33koa edo handiagoa bada<br>d) Alarguntza-pentsioak dituzten pertsonak, baldin eta beren urteko diru-sarrera gordinak Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoak badira<br>e) Terrorismoaren biktima-izaera epai edo administrazio-ebazpen baten bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorrak<br>f) Etxeko indarkeria fisikoaren edo psikikoaren biktima-izaera epai baten bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikote egonkorrak, betiere epaiak delituaren erantzule kriminalak jo ez baditu<br>g) Bereak ez diren familiek hartuak izan diren pertsonak, ebazpen judizial zein erabaki baten edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren edo pertsona hori babesteko ardura duen entitate publikoaren oniritziaren bitartez hartuak izan badira<br>h) 0 eta 3 urte bitarteko nahiz derrigorrezko irakaskuntzako zikloetako ikasleak.<br>Epigrafe honetan ezarritako murrizketa bat baino gehiago jasotzeko eskubiderik edukiz gero, murrizketak ezinen dira metatu. |
| II.4.2. Gazte Txartelaren jabeei eta langabetuei % 10ean murriztuko zaie erosten dituzten abonamenduen guztizko zenbatekoa. Beherapen hori metatu ahalko diete beren eskubidez izan dezaketen bestelako beherapenei. |

| | |
|---|---|
| II.5. Txartel berriak: | |
| - Udaleko akreditazio-txartela galduz gero, hori berriro egitea, txartela bakoitzeko | 11,20 euro |

**III. EPIGRAFEA.- ESKOLETAKO ARETOAK ETA INSTALAZIOAK (JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BARNE)**

| | |
|---|---|
| III.1 Ikasgelak eta erabilera anitzeko aretoak: | |
| - Ordu bakoitzeko | 4,45 euro |

| | |
|---|---|
| III.2. Areto Nagusia: | |
| - Ordu bakoitzeko | 20,05 euro |

| | |
|---|---|
| III.3. Eskoletako kirol-instalazioak: | |
| III.3.1. Kanpoko kirol-pista: | |
| - Lehen ordua, aldagelak erabilita | 14,50 euro |
| - Bigarren ordua eta hurrengoak, edo lehenbiziko ordua aldagelarik gabe | 3,20 euro |
| - Hezkuntza- eta kultur-jarduerak, eguneko | 72,90 euro |
| - Muntatze eta desmuntatzeko egun bakoitzeko | 72,90 euro |
| III.3.2. Gimnasioa: | |
| - Kirol-erabilera, lehendabiziko orduan, aldagelak ere erabiliz, ikastetxe guztietan | 23,45 euro. |
| - Kirol-erabilera, lehendabiziko ordua eta hurrengoetan, aldagelak ere erabiliz, ikastetxe guztietan | 7,75 euro |
| - Hezkuntza- eta kultur-jarduerak, eguneko | 84,05 euro |
| - Muntatze eta desmuntatzeko egun bakoitzeko | 84,05 euro |

| | |
|---|---|
| III.4.- Ikasgela bertan instrumentua erabilita, Joaquín Maya Musika Eskolan: | |
| - Lehen ordua | 10,40 euro |
| - Bigarren ordua eta hurrengoak | 4,45 euro |
| % 75eko murrizketa eginen zaie kontserbatorio profesionaletako edo goi-mailako kontserbatorioetako ikasleei, haietan matrikulaturik dauden bitartean. | |

| | |
|---|---|
| III.5. Beherapenak (III.1, III.2 eta III.3 epigrafeetarako oharra): | |
| Instalazio horiek aparteko jarduerak egiteko lagatzeak berekin badakar udal-langile gehiago aritu behar izatea, dagokien prezio publikoaz gain ondoko hau ordaindu beharko da langile eta ordu bakoitzeko | 22,40 euro |
| Prezioa % 75 beheratuko zaie irabazi-asmorik gabekoak izan eta Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emana duten herritar-elkarteei, baldin eta dena delako auzoan ekipamendu publiko egokirik ez izateagatik Udalak baimendutako jarduerak egiteko eskatu badute, eta, betiere, eskatutako lokala edo instalazioa erabilgarri badago. | |